

CCOOn GALEUSCAT IX. Topaketa sindikala

Galiziako Comisi3ns Obreiras sindikatu nazionalak, Euskadiko CCOOn Konfederazio Sindikalak eta Kataluniako Comissió Obrera Nacional-ek topaketa sindikal bat izan dute GALEUSCATen esparruan, 1992 urtean sortu zuten foro sindikala autonomia erkidego historikoetako CCOOn erakundeek, Katalunia, Euskadi eta Galizaren arteko lotura konfederalak indartu eta ordezkatzeko dugun errealitate plurinazionala aztertzeko.

Topaketa honetan, CCOOrentzat interes berezia duten hainbat gai jorratu ditugu, ekoizpen ereduaren aldaketak eta teknologia berriek ekintza sindikalean duten eragina, negozioazio kolektiboaren markoen eratzea enpresa ereduaren errealitate aldakor batean, baina lan erreformari esker araugintza testuinguru egokiarekin, eta, azkenik, XXI. menderako kontratu sozial berri bat eraikitze beharra, ultraeskuineko alderdien eskutik iraganera eraman nahi gaituzten politika erreakzionarioei eusteko dike gisa jardungo duena.

Ekoizpen ehunaren eraldaketak jardun sindikala eta gure antolaketa eredu egokitzea eskatzen du.

Ekoizpen ehunean gertatzen ari diren aldaketak, sektoreak eta enpresak eraldatuz kapitalismo globalaren birkonfigurazio baten eskutik, agertoki geoekonomiko berri bat eragiten ari da ezaugarri moduan munduko potentzia ekonomiko handien arteko botere globalaren lehia duena.

Egoera honek, eremu geografiko desberdinek zenbait hornidura kate berregin behar izatera bultzatzen ditu, deslokalizatutako jarduerak birkokatuz eta balio kateen zatiketa ereduetan aldaketa berriak sartuz, plataforma-ekonomiaren eta iraultza teknologiko-digital eta berdearen ondorioetara egokitzuz, zeinak eragina duen lan-harremanen ereduetan eta langileen antolamendu politikan. Erronka berriak XXI. mendeko sindikalismoarentzat.

Illo honetan, gero eta lausoagoak, zatituagoak, telematikoagoak eta digitalagoak diren enpresekin langileekiko hurbiltasun mekanismoak indartzeko gure praktika sindikala egokitzeko prozesuak, sindikatuak indartu behar dituen funtsezko erronka dira. Sindikatuaren lanerako metodo berriak txertatu behar ditugu, teknologian eta ezagutzan inbertituz, baliabideak lantokira birbideratuz eta gure autonomia sindikala eta finantza autonomia kudeatuz, une honetan krisialdi kateatuen eraginpean dauden milaka langilek bizi duten egoera ahaztu gabe, gaur egun dugun inflazio handiko testuinguru honetan. Horregatik, GALEUSCATek balioa eman nahi dio CCOO Espainiako Konfederazio Sindikalak 2023rako kuota sindikala izozteko hartutako erabakiari.

Ahalegin hori erakundea osatzen dugun pertsona guztiok egin behar dugu gure finantza-bideragarritasunari eusteko, gure afiliatuen kuoten behin-behineko kudeatzaile eta arduradun garen aldetik, herri honetako langileekin dugun konpromiso irmoa.

Negoiazio kolektiboak gertutasunetik indartu behar ditu langileen arteko harremanak

Aipatzen ditugun aldaketak, lan mundukoak zein politika sindikalekoak, koherentziaz adierazi behar dira langileen eskubide kolektiboak artikulatzen diren lekuetan. Hitzarmen kolektiboak. Ildo horretan, lan-erreformak eskaintzen dizkigun lan harremanetan berreskuratu ditugun orekak sustatu behar ditu sindikatuaren estrategiak. Ultraaktibitateak, sektoreko hitzarmenek enpresakoen gainetik duten nagusitasunak eta lan-merkatuaren egonkortzeak, kontratazio mugagabearen hazkunde historikoarekin, negoziazio eszenatoki bat ahalbidetzen dute, non lana eta kapitalaren lehia indarrean jartzen den, 2022ko negoziazio prozesuetan erakutsi dugun moduan, Espainian eta gure lurraldeetan “soldata ala gatazka”ren gakoa ezartzea lortu dugu.

Errealitate berri honek lan munduaren egitura aldaketei ere erantzun behar die; izan ere, sindikatuaren gertutasun irizpidea eta haren tresnak langileekin indartzea beharrezkoa da. Gertutasun horrek, errealitate komunitario eta nazionalak erabat aitortzea dakar pertsonak errealizatu eta prozesu globaletan parte-hartzeko garapen espazio moduan, pertsonen deserrotzea dakarren eta indar antidemokratikoei oinarri soziala ematen dien eliteek zuzendutako prozesu globalizatzaile bati kontrajarrita.

Horretarako, GALEUSCATetik ezinbestekotzat jotzen dugu marko konfederalean eztabaida bat irekitzea, negoziazio eremuen egungo konfigurazioa eta etorkizuneko aurreikuspena aztertzeke eta hitzarmen kolektiboen lurralde eta sektore artikulazio irizpideak zein artikulazio funtzional irizpideak indartzeko.

Gizarte eta herritartasun eskubideak indartzea da faxismoaren aurkako antidotorik onena

Santiago de Compostelako topaketaren markoan, hiru erakundeok, gure estatu mailako idazkari nagusiaren parte-hartzearekin, egoera politikoa aztertu dugu, alderdi kontserbadoreen erradikalizazioarekiko kezka azalduz, balio demokratikoei eraso egiten dien inertzia global batek eraginda, erakundeen izen ona galtzearen aurkako eraso egiten dute, eta botere legegileak, betearazleak eta judizialak estatu demokratikoa desegiteko erabiltzen saiatu.

Brasilen, AEBn edo ultraeskuindarrek Europan eta, bereziki hemen, izan duten gorakadari aurre egiteko, testuinguruaren konplexutasunaren aurrean ziurtasun-guneak eraiki behar dira, pobrezia eta desberdintasunak gehien kaltetutako pertsonen erantzun zehatzak eman behar zaizkie, ongizate-estatu eta zerbitzu publikoak indartu behar dira kohesio eta justizia sozialaren faktore moduan, eta lan duina egin behar da jendearen baldintza materialak bermatzeko. Ildo horretan, sindikatuen munduak ultraeskuindarren diskurtsoen aurkako borrokari nola aurre egiten dion aztertu dugu, praktika eta prestakuntza sindikaletik eta gure erakundeen memoria historikotik.

Errealitate horretatik egituratzen dute askatasun eta justizia espazioek demokrazia. Kontratu sozial berri bat eraikita indartzen da gure erakundeen legitimitatea, demokrazia eta eraikitzen da aurrerapen eta berdintasun herri bat.

Santiago de Compostela
2023ko urtarrilaren 24 eta 25